

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HENASE, HERNANIKO NEKAZARI ELKARTEAREN ALDEKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA ONARTZEKO PROPOSAMENA

HERNANIKO UDALAK, Herriko nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari laguntza eman nahi dio, horrela enplegua sustatzen da, herritarren bizi kalitatea hobetu, eta oro har 1go sektoreko eskaintza zabala bermatzeko pausoak ematen dira eta herria bizirik mantentzen da. 1go sektorerik gabeko herria hilik dago.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Kontuan hartu da Herritarrentzako Zerbitzuen Batzordeak 2023ko otsailaren 23ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

Lehena.- Diru-laguntza zuzena ematea. Hernaniko udala eta Henaseren arteko diru-laguntza hitzarmena onartzea.

Onuraduna: Henase elkarte Diru Kopurua: 35.000 €

Aurrekontuko partida: 02.481.02.439.00 2023-Henase. Kopurua: 35.000.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2023ko martxoaren 2an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4bdf0c2-dbb5-4d77-ac91-55b28d0ecf50**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>